



Graxi eta bere zaiskiak

PIO BAROJA-RENA
AYALDE'K EUSKERATUA

Nere erriaren ondoan ba da baso zar eta zabal bat. Anziñako baso ortan ikazkiñiak dituzu lanean.

Esango duzu noski, ene andre maitea: «Asi eta gezurretan dabil au.» Bañan, neri zer?

Ikazkin guzien nagusia Martin Baigorri duzu. Ba du Baigorrik alaba bat, inguruko neska politena dana. Graciosa izenez. Euskaldunok Graxi deitzen diogu. Beltxarana ala rubiya dan galdetuko didazu, agian. Iya ez dakit, orra. Begiratzten diotanean, ain polita iruditzen zait-eta, ez naiz konturatzten nolakoa dan. Esan, esan zazu au ere gezurra dala; nik ez dizut ukatuko. Egitaz, orren polita dalako nik ezin dezaket ondo jakin nolakoa dan emakumea... zeu zera.

—Ba!

Martin Baigorrik alaba ezkondu nai du. Irakurle porrokatu eta antiolako kontuak dakizkien gizona izaki, asmatu dizu, alegia, Graxiren santu-egunean, alabaren zaiskiak gonbidatu bazkaltzera, eta maian bertan aukera egin. Zer diozu? Orrelako aukeretan gurasoak ez dutela sartu bear? Ala da. Bañan orixe duzu tradizioa, arbasoen oitura zarra...

Baigorrik zazpi mutil bereizten ditu, beste askoren artean. Iñazio Baztan da lenena, Artillerian gudari izandakoa. Bigarrena Migel Garraiz, Artikutzako artzaia. Irugarrena Domingo Matxin, Ondarribiko itxas-gizona. Laugarrena Antonio Iparragirre, Lesakako meatze-langillea. Bostgarrena Juan Telletxea (Juantxo) Berako «Errotabide» baserrikoa. Seigarrena Xanti Zabaleta (Itxua), Huasako aizkolaria. Eta zazpigarrena Pello Azkona, Oyartzungo baserri bateko morroia.

Irudimenezko zazpi gizaseme auek, egiazko zazpireunez biurtuko ziran, zu andregai ba zifakean...

—Txorakeriak!

Egia utsa, mundua dan bezela. Bazkari-ondarretan Martin Baigorrik jarraitzalleri esaten die:

«Tira! Mintza zaitetzte, zuen merituak entzun ditzagun.»

Lenen mintzatzen dana Baztan gudaria duzu. Afrikan

egindako txango eta balentriak kondatzen ditu; mausermatxetez ill dituen zenbat eta zenbat moruak, salbatu dituen emakumeak, moroen zelaietan gabaz jasotako arrisko ikaragarriak... Bañan Graxi ez da malmetititu ere. «Zer ba? —galdegin dezakezu— militarren kontrakoa al dugu Graxi?»

—Ez. Nik ez dut ezer galdetzen.

Ez ba. Graxi ez da militar-kontrako orietakoa. Graxiren biotzak ixilpeko bat, ixilpeko larri bat gordetzen baitu.

Bigarrenez itzegiteko Migel Garraiz artzaia duzu. Bere mendi-ibillerak, kondatzen dizkie; antxume eta arkume jaioberriak nola zaintzen dituen; gaban izartegiari begiratzten ikasi duena... Bañan Graxi ez da malmetititzen. «Kirol-kontrakoa ote dugu Graxi?» galdegingo duzu agian.

—Ezta ortaz pentsatu ere.

Graxik ixilpeko larri bat baitu gordea biotzean.

Irugarren itzegiten duena Domingo Matxin itxasgizona da. Onek kondatzen ditu itxaso orrulari eta zabalean izandako arriskoak, baita ere, sumarinoko kañoiak barkua txikitzen dutenean, ondoratzean sentitzen diran beldur ta ikarak... Graxi, baña, ez da malmetititu ere. Itxastarren kontrakoa ez da, ez, bañan Graxiren biotzak ixilpeko bat, ixilpeko larri bat badu gordea.

Antonio Iparragirre, meatze-langillea, duzu laugarren mintzatzen dana. Lurpeko bide illunetako lanak adierazten ditu; lur-erraiñatik ateratzeko eta leize zulo beltzetatik mineralak eguzki-argitaratzeko bere izerdi ta nekeaz itzegiten du... Bañan Graxi ez da malmetititu, zeren Graxiren biotzak gordetzen baitu ixilpeko bat, ixilpeko larri bat.

Juantxo, «Errotabide»-ko eiztaria duzu bostgarren mintzalaria. Kondatzen ditu bere eiza-ibillaldiak, negu-neguan basurdeen atzetik elurratik ibiltzen danean. Bere eiza-asmaketa eta txistimik azaltzen dizkie, baitare pizti zakar oriekin egiten dituen borrokak. Graxi, baña, ez da malmetititu.

—Ez al dugu Graxi eiza-zalea?

Ez. Gañera, bere biotzak ixilpeko bat, ixilpeko larri bat gordetzen du.

Seigarrena, Itxua, Huasako aizkolaria duzu izlaria. Basoaren bakardadean daraman bizia adiera ematen die, baita oyan basatietatik zear egiten dituen ibillaldiak, eta bere txabola-aren atsedean ta ixiltasuna ere.

—Eta Graxi malmetititu gabe, noski.

Jakiña. Ez da malmetititu, zeren Graxiren biotzak baitu gordea ixilpeko bat, ixilpeko larri bat.

Oyartzungo baserri-mutilla, Pello Azkona, duzu zaspigarren txandan itzezin bear duena, bañan Azkonak eztaki zer esan, ez zer kontatu. Lilluratu eta zoraturik Graxiri begiratzten duzu.

—Eta Graxi?

Graxik ere begiratzten dio irrifarrez, eta eskua luzatzen dio, andregai bezela.

—Azkona mintzatzen ez dalako?

Mintzatzen ez dalako eta Graxiren ixilpekoa, bere ixilpeko larria, auxe besterik ez dalako, alegia: Pellorenganako mai-tiniña.

* * *

Orrelaxe duzu, ene andre maitea, gure euskal-odola: zintzo, ixill, egia-zalea, jende indartsu eta ixilla maite duena...

—Zu, ordea, itzontzi bat besterik ez zera.

Bai. Alegi ontan ni naiz militar, artzai, itxastar, meatze-langille, eiztari eta aizkolarri berritxuen ordezkoa.

—Beraz, arrokeri eta aundinaitasunarena ere bai.

Baita fantasia eta amets zoroarena ere, ene andre maitea.

—o—o—

Zaiskia. = Jarraitzale, segitzale, pretendiente.

Malmetititu. = Conmverse.

Ixilpeko. = Secreto.

Alegi. = Fábula, cuento.